

Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?

Lehenik, lehengai hornitzaileak behar ditugu pilak egiteko materialak, kargagailua egiteko materialak eta karga sistemak erabiliko dituen gauza elektronikoak hornituko dizkigutenak. Bigarrenik, teknologia eta ekipamendu hornitzaileak ere beharko ditugu bateriak ekoizteko kalitate kontrolerako laborategia eta gure produktua probatzeko tresnak edukitzeko. Horrez gain, logistika enpresekin ere harremandu behar dugu gure produktua banatu ahal izateko. Bestalde, merkaturatze bazkideak ere beharko ditugu dendak adibidez gure produktua saldu ahal izateko. Azkenik, gure produktua segurua dela zihurtatuko duen agentziaren batekin ere harremandu beharko dugu.

Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

Hainbat arrazoiengatik, lehenik eta behin kalitatea bermatzeko, hornitzaile honekin harremantzen bagara kalitatea bermatu ahal izango dugulako. Bestalde, ekoizpen egonkorra eduki ahal izango dugu hornitzaile egokiekin harremandu ezkeror beti edukiko ditugulako ekoizteko materialak. Horrez gain, merkatura iristeko ere garrantzitsuak dira hainbat dendekin loturak eginez merkatura iristea lortuko dugulako. Azkenik, segurtasuna bermatzeko ere garrantzitsuak dira, segurtasuna oso ezaugarri garrantzitsua delako bezeroak pozik egon ahal izateko.